

HILEKOA

"BURDINA GORIA, BIZIAREN GORRIA"



KALE-IRAKURRALDIA

APIRILAK 25 12:00 ETAN

PARKE MUERTON



—LIZEAGAKO JOLAS-LEKU ESTALIAN—



HILEKOA

“BURDINA GORIA, BIZIAREN GORRIA”

KALE IRAKURRALDIA

2021-04-25

HERNANI

1.



Sara Morante



Julia Larotonda



Usaina sumatu, eta urduri jarri zara

NEREA IBARZABAL

Hamabi urte dauzkat bakarrik
dena poza ta azaina!
Udalekutan apuntatu naiz
udari hartzeko gaina
lotara sartu ta sentitu dut
izara txuri labaina
baina adinaren ordaina
da ni beldurtzeko aina!
Atzo gauean tripako minak
sentitu nituen baina
orain lehen aldiz usaintzen nabil
hilekoaren usaina. (bis)

Bihar esnatu eta mutilek
barre egin baietz, klaro!
Ta neskek igual begiratuko
didate pixka´ arraro!
Nahiz eta une honetarako
prestatu nauten luzaro,
ezin zen hemen igaro
urtez urte, aroz aro!
“Emakume bat omen naiz orain
ta edozertako prest nago!”
Orduan nola senti naiteke
inoiz baino txikiago? (bis)

Eguna ia argitzear da
berriz dut usaina hartu
ta baietz laster literakoak
apurka-apurka esnatu
agian hobe begiraleena
pixkanaka gerturatu
eta tanpoi bat eskatu
“Mesedez, ez hau kontatu!”.
Begira nago orbanari ta
nahiz ta hauxe dudan patu
iruditzen zait ez daukadala
honetaz zertan lotsatu. (bis)

Berezi egiten gintuena

DANELE SARRIUGARTE

Guk patioko garai hartan bagenuen mutilak pajek bezala berezi egiten gintuen zerbait, berezi edo zehatzagoa litzateke esatea zikin eta arbuiagarri eta lotsagarri egiten gintuena, eta txiste matxistei jaramon eginda baita usaintsu eta umore txarreko eta arriskutsu eta irrazional eta petral ere; bagenuen ez-berdin egiten gintuen zerbait eta oroitzen dut klasekide bereziki intrigatu bat galdezka, ea turrusta nabaritzen nuen erortzen zenean eta ea odolaren gorritasunak ez ninduen inpaktatzen, eta ni onomatopeia bitartez azaltzen saiatzen gehiago zela plof lehor bat dutxako txorrotaren emari likidoa baino, eta medikamentu adibideen bitartez azaltzen saiatzen kolorea betadineren tankerakoa zela merkrominarena bainoago; bestalde, lehenengo eta azkenengo egunetan beti da nahiko marroixka, hain zuzen, gogoan dut lehenengo aldiz izan nuenean eskolako egun bereziren bat zela, urteroko haur krosa-edo, eta etxera iritsi eta kulero zuri marroituak ikusi nituenean amari esan niola noiz gertatu zen konturatu ez banintzen ere bazirudiela kaka egin nuela praketan lasterketaren aurretik nerbio-engatik-edo, eta amak barrezka esan zidala ez zuela uste hori kaka zenik hilekoa baizik eta flipatu egin nuela, nola izango nuen ba nik hilekoa artean titiak noiz haziko zain nengoen eta; gero, azkenean, ez zitzaizkidan sekula hazi eta menstruazioak, aldiz, hemen dirau (eta zorionez esan beharko) hilero nire uteroa tarra-
tatzen.

Lotsa gorria / Izuaren gorria

BEGO MONTORIO

LOTSA GORRIA

Institutua. Matematikako eskola, ehunekoak eta estadistikak.

Buruketa: Lizeo batean 400 ikasle daude, horietatik % 52 mutilak eta % 48 neskak. Irakasleak eta bestelako langileak 46 dira guztira, % 65 emakumeak eta %35 gizonak. Kontuan hartuta emakumezko guztiak hilekoa izateko adinean daudela eta batez beste 28 egunetik behin eta hiru egunez izaten dutela, lizeo horretako zenbatek izango dute gaur hilekoa?

Harridurak eten du ikasleen kopiaketa, eta guztiak txunditu ditu emaitzaren handiak.

Sindikatuaren hurrengo bilerarako —idatzi du koadernoan ikasleetako batek—: eskatu konpresa eta tanpoi makinak komun guztietan. Pentsatu zer egin kopekin.

Jantzita du musukoa, eta, behingoagatik, eskertu egin du eraman beharra. Hala, inork ez du igarriko zelan lotsagorritu den pentsatze hutsarekin norbaitek igar zezakeela bera dela gaur hilekoa duen horietako bat.

IZUAREN GORRIA

Inoizko egunik luzeenak.

Kulero zuriak, elurra baino are zuriagoak, jantzi ditu egunero. Orban ñimiñoena ere antzeman ahal izateko; antzemateko irrikaz.

Nahikotan, sarritan, behar baino askoz gehiagotan joaten izan da komunera. Laugarren egunerako ohitura bilakatu zaizkio ihesalditxoak; kuleroak jaitsi, begiratu, berriro igo, eta alde egin.

Hardunaldi baten truke, ez!, barru-barruko oihu isil ozena, hilekoa ez edukitzeko edozer emango lukeela esan duen aldi bakoitza gogora datorkionean.

Inoizko egunik luzeenak.

Sei, dio egutegiak; hamaika, bere buruak, infinitoa.

Amak belarrondoko bat eman zidan

EVE ENSLER

Aitak txartel bat oparitu zidan: “Nire txikiarentzat, jadanik ez da hain txikia”.

Izututa nengoen. Amak konpresa lodiak erakutsi zizkidan. Erabilitakoak sukaldeko harraskaren azpiko ontzian bota behar nituen.

Gogoan dut azkenetakoa izan nintzela. Hamahiru urte nituen.

Denok nahi genuen hilekoa lehenengoz etortzea.

Beldur ikaragarria nuen. Erabilitako konpresak estraza-paperezko poltsetan sartzen hasi nintzen, ganbarako zoko ilunetan.

Zortzigarren ikasturtean. Amak esan zuen: “Hara, ederki”.

Institutuan: tantatxo marroi batzuk hilekoa lehenengoz izan aurretik. Era desberdinean hazten ziren besapeetako iletxo batzuekin batera gertatu zen: ilea zegoen besape batean, eta bestean ez.

Hamabi urte nituen. Kulerotan nindoan. Artean jantzi gabe nengoen. Eskaileretan nindoala behera begiratu nuen. Hor zegoen.

Beherantz begiratu eta odola ikusi nuen.

Zazpigarren ikasturtea. Amak kuleroak ikusi zizkidan eta plastikozko pixoihalak eman zizkidan.

Amak oso maitekor jardun zuen: “Goazen konpresa baten bila”.

Nire lagun Marciaren etxean ospatu egin zuten etorri zitzaionean. Afari bat egin zuten haren omenez.

Denok nahi genuen hilekoa jaistea.

Denok eduki nahi genuen.

Hamahiru urte. Konpresa modernoan aurreko garaia zen. Kontuz ibili soinekoarekin. Beltza eta pobrea nintzen. Elizako soinekoa odolez zikindu nuen. Ez zen nabaritzen, baina errudun sentitu nintzen.

Hamar urte eta erdi nituen. Ez nengoen prest. Lohitasun marroia kuleroetan.

Tanpoi bat jartzen irakatsi zidan. Erdia baino ez zitzaidan sartu.

Amak esan zidan konpresak jantzi behar nituela. Tanpoirik ez. Ezin zenuela pottottan ezer sartu.

Nire hilekoa, labean sartu aurreko bizkotxo-masa bezalakoa. Indiarrek bost egun ematen zituzten goroldioan eserita. Nahiago nuke amerikar jatorrikoa izan banitz.

Hamabost urte nituen eta hilekoa lehenengoz izateko irrikan nengoen. Oso altua nintzen eta etengabe hazten nintzen.

Gimnasioan emakume zuriak tanpoiekin ikusten nituenean, neska gaiztoak zirela uste nuen.

Odol-tantatxo batzuk ikusi nituen baldosa arrosetan, eta pentsatu nuen: “Ondo!”.

Hamabi urte. Oso pozik nengoen. Nire lagunak ouija bat zuen. Hilekoa noiz etorriko zitzaigun galdetu zion, begiak jaitsi eta odola ikusi nuen.

Erabat aldatu zitzaidan neure buruaz nuen sentsazioa. Oso isila eta heldua bihurtu nintzen. Emakume vietnamdar ona: langile isila, bertutetsua, inoiz hitz egiten ez duena.

Bederatzi urte eta erdi. Odolustuta hilko nintzela uste nuen. Kulerioak kiribildu eta bazter batera bota nituen. Ez nituen gurasoak kezkatu nahi.

“Carling andereño maitea, utz ezazu nire alaba alde batera saski-baloian. Emakume bihurtu berri da”.

Kanpalekuan esan zidaten ez bainatzeko hilekoa baldin banuen. Antiseptikoarekin garbitu ninduten.

Beldur nintzen jendeak usainduko ote zuen. Beldur nintzen ez ote zidaten esango arrain usaina nuela.

Botaka aritzen nintzen, ezin zuen jan.

Goseak nengoen.

Batzuetan oso gorria da.

Gustatzen zaizkit komunera erortzen diren tantak. Pintura dirudite.

Batzuetan marroia da eta urduri jartzen nau.

Hamabi urte nituen. Amak belarrondoko bat eman eta kotoizko alkandora gorri bat erosi zidan. Aita sangria-botila baten bila atera zen.

2.



Liv Strömquist



Torpor

OIHANA ARANA

Hiru egun daramatza J-k etxean.

Sofan.

Amonak nerabetan oparitu zion manta koloretsua
bihurtu zaio azal. Mamiaren antitesi
den azal. Grisa da J-ren mamia.

Otordu dei dakioken otordu bakarra
egiten du egunean: gosaria. Gainontzean:
zorroko patatak, gominolak eta
ardoa. Ardo merkea. Merkea, baina kopan.

Depresioa deituko lioke H-k.

Hilerokoa I-k.

Hibernazioa J-k.

Ados nago J-rekin. Beharrezkoa da
deskonektatzea.

Giza eskubideek onartu beharko lukete. 31. artikulua:
inori azalpenik eman behar izan gabe
hilean hiru egunez
etxean lasai egoteko eskubidea.
Edo hibernatzeko eskubidea,
hizkera arruntan.

Hartz sentitzeko
eskubidea. Berdin da peluxezko
edo Piriniotako.

Garrantzirik apenas duten datuak
irakurtzen igarotzen du eguna.
Portatila belaunen gainean, entziklopedia
askeari so. Wikipedia da, agian,
etxe honetan askea den bakarra.
Ni J-ren menpekoa bainaiz. Eta J ere bai.

Legez kanpokoia izan beharko litzateke
jendartean erroturik dauden sinesmenak
faltsuak izatea. Nork sinistarazi digu hartzek
hibernazioa egiten dutela, teknikoki gezurra bada?

“Hartza negua hibernazio-egoeran
igarotzen duen animalia
dela uste ohi bada ere,
bere gorputzeko tenperatura ez da
nabarmen jaisten eta
aise esna daiteke arrisku egoeran
dagoela igartzen badu”.
Wikipedia dixit.

Beste izen bat jarri nahi dio, beraz,
J-k bereari.

Meditazioa?
Medikazioa?
Dedikazioa?
Ez. Existitzen dira denak.

Existitzen ez diren hitzek baino
ezin dezakete horren sentsazio
zerutarra deskriba.

Gero berandu izan liteke

LEIRE BILBAO

Hankak zabaldu ditut ginekologoaren aurrean
horman zurian begiak zuri
pareta zati leun eta apaingabe bila nabil
garbia argia hutsa.

Zenbat urte ditudan galdetu dit
atzamarra nire baginan.
Hogeita hamar.
“Ez duzu umerik ekarri nahi?
Gero berandu izan liteke”.

Isilunean armiarma bat zintzilikatu da horman
ni bezala hanka-zabalik.
Dioست mundura umeak ekartzeko etorri naizela
nire arbaso eta ondorengoak bezala
hanka-zabalik amaituko dudala
hanka-zabalik jaio ninduten bezala
hankza-zabalik bizi beharko dudala.

Ziztada bat sentitu dut baginan.
Segidan esku bat ezkerreko izterrean.
Janzteko agindu dit kloroformo ahotsez.

Oinak bata bestearen kontra estutu
eta etzanda jarraitu dut.
Izarra zuria estaltzen duen gorpu bat-bat
eta armiarma geratu gara gelan:
zuloa eta sarea
besterik ez dugula.

Atea zabaldu da zakar.
Bakeroak bilatu ditut
estali nahi azkarregi batekin.

Armiarma ezkutatu egin da.

Medikuntzak badu kolorea,
eta ez da gorria
(ezta morea ere)

BEGO MONTORIO

Mendeak, eta mendeak, eta mendeak. Gaitzik arruntenak eta gaisotasun ezohikoenak aztertzen, sendabideak eta leungarriak bilatzen. Mendeak eta mendeak. Hogeita bat baino are gehiago.

Emakumezko mediku bati irakurri berri diot hilekoa-
rekin loturiko minak ez direla inondik inora ezinbestekoak.
Eta, hala ere, ia hutsik dago, ordaindik, milioika andraz-
koon aldiroko min horren ikerketari dagokion txostena.

Isildu hadi, neska, gauza garrantzitsuetan ari ditun.

Noiz izango da hurrengoa

LOURDES OÑEDERRA

Eskuak lehortzeko erabili duzun papera botatzeko, oinaz sakatzen duzu ontziaren estalkia altxatzen duen pedala. Beste emakumeren baten odol arrastoak ontzira botatako konpresan. Besteren batena, ez zurea, zurea ez. Zuk aspaldi ez duzu odol arrastorik uzten, hileroko emakumeen odolaren arrastorik.

Atximurraren antzeko zerbait sentitu duzu bizkarrean.

Agian Jainkoak zigortu zaitu horrenbeste aldiz ezetz esateagatik eta orain ezin duzu. Haurdun gelditu. Haurdun. Hara zer hitza. Hara zer hizkuntza atzerakoia. Apaiz gehiegi hiztegiak asmatzen. Dotrina gehiegi tradizioa osatzen.

Birjintasun galduaren beldurrak, plazerak eta arriskuak, pasioaren beldurrak, arriskuaren gozatzea.

Alkoholaren distira begietan lababo gaineko ispiluak itzultzen dizun zure aurpegiaren irudian. Malkoek ere distiratsu jarri ohi dizkizute begiak, baina aspaldi ez duzu negar egiten. Aspaldi ez duzu hilekoaren lehen eguna apuntatzen ere, ginekologoaren urteroko bisitarako ez bada, hori izaten baita urteroko bisitan ginekologoak galdetzen dizun lehen gauza, ea noiz izan zenuen azkenekoz hilekoa.

Urtero errepikatzen den hilerokoari buruzko galdera. Zertarako galdetzen dute horrenbeste, gero ez badu axola.

Noiz izan zen azkeneko hilekoa. Hilerokoaz urteroko galdera. Noiz izan da azkena. Ez, lasai egoteko, nerbioak izango direla.

Ginekologoaren mahai handia eta irribarre leuna. Oraindik goiz dela menopausiaz pentsatzeko, baina batzuetan, oso batzuetan...

Lumaz idazten du zure ginekologoak. Zenbat urte dituzu.

Noiz izan da azkena, noiz izango da hurrengoa, noiz izango da hurrengoa, izango da hurrengoa, izango al da hurrengoa, hurrengorik.

Noiz izan zenuen azken hilekoa, hilekoaren arrasto iluna, ardo beltz batzuen gorri ilun hori.

3.



Hilekoa Erakusketa
Itur Zuri Emakume Elkarte, Aramaio



Heroismo eta pasibitatea

SONIA GONZÁLEZ

Hazia deitzen zaio spermari, haziak direlako, lurlean ereinda, landareak sortzen dituztenak. Hala, haziari, spermari, bizia sortzeko gaitasuna egotzi izan zaio historian zehar. Menstruazio odolari, ordea, lurraren ongarri antzeko funtzioa aitortzen zitzaion antzinako Grezian.

Hortaz, emakumeok jasotzeko prest. Eta beti prest. Gizonezkoen leinuari jarraipena eman ahal izateko.

Ondo gogoratzen dut zelan azaldu ziguten klasean fekundazioa. Obulua eta espermatozoidea. Obulua bertan, zain, geldi, aiduru. Eta espermatozoideak lehenbizikoa eta, hortaz, arinena eta indartsuena zein izango den frogatzeko gogoz. Barruan hazi dizkigutenen artean txapeldunak obulu barrura sartzea lortuko du azkenik.

Lasterketa heroikoan edozein mutilek ikus dezake bere heroismoa. Eta edozein neskak bere pasibitatea, espermatozoiderik onenaz fekundatuko duen heroiaren zain. Jaio orduko horrelakoak garela zientifikoki argi izan dezagun.

Baina, antza, gauzak ez dira kontatzen diren bezala. Espermatozoideak euren kabuz ez lirateke helduko inora. Obulua omen da bidea seinalatzen duena eta helmugara heltzeko energia bultzada ematen diena, CatSper izeneko ioi kanalak aktibaturik. Progesterona hormonaz egiten ei du.

Eta behin obulura erakarrita (eta ez helduta), espermatozoidea sartu baino, espermatozoideri sarrera ematen dio obuluak, Folr4 folato hartzailearen bitartez.

Heroismo handirik ez. Pasibitaterik ere ez.

Gizonaren izua

SIMONE DE BEAUVOIR

Odola elementu sakratu bat da berez, aldi berean bizia eta heriotza den mana misteriotsuaz betea beste edozein baino gehiago. Baina hilekoaren odolaren ahalmen galgarriak bereziagoak dira askoz ere. Feminitatearen muina da odol hori. Horregatik, jario horrek arriskuan jartzen du emakumea bera ere, zeinaren mana horrela mamitzen baita.

Barne-alkimia ilun batzuen ondorioz, emakumearen hileroko odol-galera harrigarriro egokitzen da ilargiaren zikloarekin: ilargiak ere apeta arriskutsuak ditu. Planeten eta eguzkiaren martxa gobernatzen duen engranaje beldurgarriaren parte da emakumea; gatibu dute izarren eta mareen destinoa gidatzen duten indar kosmikoek, eta gizonek sufritzen dituzte indar kosmiko horien erradiazio aztoragarriak. Baina, oroz gainetik, harrigarria da ikustea hilekoaren odola nola lotzen den mintzen den kremarekin, loditzen ez den maionesarekin, hartziduraren eta ustelduraren ideiekin; esaten da, orobat, objektu hauskorak puskatzea ekartzen duela, biolinen eta harpen hariak saltatzea; baina, batez ere, substantzia organikoetan du eragina, materiaren eta biziaren erdibidean; eta ez hainbeste odola delako, baizik genitaletatik ateratzen delako; zertarako den zehatz jakin gabe ere, jabetzen dira zerikusia duela biziaren sorrerarekin: obulutegia dagoenik ere jakin gabe, antzinakoentzat espermaren osagarri bat zen hilekoa. Egiaz, ez du odol horrek lohitzen emakumea, baina odol hori da haren lohikeriaren seinale; ernaldua izan daitekeenean agertzen da; guztiz desagertzen denean, emakumea antzua da berriro; fetua onitzen den sabeletik ateratzen da odola. Haren bitartez, agerian geratzen da nolako izua ematen dion gizonari emakumeen ugaltzenak.

Ez dakit

GORKA SETIEN

Ez nekien denbora hala zenbatu zitekeenik
eta oraindik ere ez dakit
ez dakit nola heldu den inbidiagai izatera
usteak besterik ez
ez dakit Aristoteles
zergatik izan zen hain ezjakina; interesak agian
ez dakit zergatik zientzilari gizonezkoek
afera arriskutsu izendatu zuten
agian mikroskopioa hartu eta ilargiari zelatan ibili zirelako
baina ez dakit
ez nekien iragarki komertzialekin tabuak betikotu zitezkeenik
ere; eta ez dakit
ez dut ezagutzen hainbeste bortizkeriaren arrazoia
usteak bakarrik berriro ere
ez dakit hilerokoa zer den
nahiz eta usaindu sumatu busti naizen berarekin
uteroen taupadek eta uzkurdurek harrapatu ez nautelako
eta hau isilik egon ezinaren
ezinegon gorria besterik ez da.

Emakumearen sexu-kutsadura

ELIZEN ARTEKO BIBLIA
(LEBITARREN LIBURUA, 15)

Hilerokoa izanik, odoljariora duen emakumea zazpi egunez geldituko da kutsaturik; emakumea ukitzen duena kutsaturik geldituko da arratsa arte.

Hilerokoa izanik erabiltzen duen etzalekua nahiz eserlekua kutsatua gelditzen da.

Haren etzalekua ukitzen duenak arropak eta gorputza garbituko ditu eta kutsaturik geldituko da arratsa arte.

Hark erabilitako eserlekua ukitzen duenak arropak eta gorputza garbituko ditu eta kutsaturik geldituko da arratsa arte.

Hura etzanda edo eserita egondako lekuan dagoen edozer gauza kutsaturik geldituko da arratsa arte.

Aldi horretan emakumearekin etzaten den gizonezkoa haren lohidura beraz kutsatzen da, eta zazpi egunez geldituko da kutsaturik; erabiliko duen etzalekua ere kutsatua geldituko da.

Hilerokoaz kanpo edo hilerokoan ohi den baino luzaroago odoljariora duen emakumea, kutsaturik geldituko da odoljariorak dirauen bitartean, hilerokoan bezala.

Odoljariorak dirauen bitarte osoan erabiltzen duen etzalekua nahiz eserlekua kutsatua gelditzen da, hilerokoan bezala.

Horiek ukitzen dituen kutsatu bihurtzen da; arropak eta gor-

putza garbituko ditu eta kutsaturik geldituko da arratsa arte.

Odoljarioa amaitu eta gero, zazpi egun itxaron beharko du emakumeak, berriro garbi geratzeko.

Zortzigarren egunean, bi usapal edo bi usakume hartuko ditu eta apaizari eramango dizkio, elkarketa-etxolaren sarrerara.

Apaizak bata barkamen-oparitzat eta bestea erre-oparitzat eskainiko ditu. Honela, emakumearen aldeko garbikuntza-ohikunea egingo du Jaunaren aurrean, kutsatzen zuen odoljarioagatik.



Otto Müller: *Dos mujeres desnudas al aire libre*; tela; 175 x 110 cm; 1951. Städtische Kunsthalle, Mannheim.

Mu'in Musavvir c. 1617-c. 1700

El pintor persa Mu'in Musavvir fue discípulo de Riza Abbasi. Prolífico dibujante y miniaturista, trabajó en Isfahán desde 1635. Estuvo al servicio del Sha Sulayman, diseñando tal vez los papeles de mosaicos con flores y animales. En un par de obras, como la que se ve encima, se ve el uso de colores vivos.

Müller, Otto 1874

Este pintor alemán n. (Sajonia), estudió en Berlín y en Múnich (1898-9). Destruyó la obra que había en sus comienzos bajo la influencia de Arnold Böcklin y de J. S. Pankofsky. Su arte más maduro ya estaba formado en 1908, cuando se trasladó a París. Allí pintó una serie de desnudos en paisajes que revelaron el conocimiento de Matisse, del arte japonés y de la pintura cubista. Su obra fue rechazada por la Sección de Pintura en el primer Salón de los Independientes, cuyos miembros se sintieron atraídos por su uso de colores. Después de haber trabajado con Kirchner, los desnudos se hicieron más angulares y geométricos (por ejemplo, *La mujer sentada*, c. 1920, Neue Munch). A partir de 1920 se dedicó a pintar sobre todo temas

Multscher,

El escultor y arquitecto Hans Multscher, destacado en Suabia. Tenía un taller importante e influente en Ulm. Lo mismo que otros talleres de otras prósperas ciudades alemanas del sur, Multscher aceptó encargos de lo más variados, entre ellos, monumentos

4.



Andrea Abreu



Zisnearen kantua

MIREN AGUR MEABE

Zenbat balio du gutxi jakin nahi eta
ezer eskatzen ez duen emakume batek?

Esku-ahurrak gora begira ditu,
eta zeruak adurra askatzen du, errukior.

Hileko odolari, iraganaren akronimo horri,
seme nerabearen tristura elkartu zaio.

Kantuan ari da zisnea, mezurik sentituena
hormonen ilunabarrean.

Teilapeetan, amodioak gogaitu eta elikaturiko bizitzak,
bodegoi sepia eta berdeak, bakea eta gerra lore artean.

Hain da hauskorra dena, hain erraza laburbiltzen.
Edukia eta edukiontzia, naufragio bakoitzaren markak.

Odolusten

MIRIAM REYES

Batzuetan, egun osoak igarotzen ditut odolatan
(ama izateari uko egitearen ondorioz).
Sabel hutsa odolatan dago
maitemindutako emakumea bezala
gehiagizko eta gupidagabe.

Seme-alabak amaren gorputzetik
inoiz aterako ez balira
zin egiten dizut oraintxe bertan bat izango nukeela,
nire baitan hazten sentitzeko
saio espiritista batean bezala nitaz jabetu dadin
edo nire umetxoa eta biok
errusiar panpinak izango bagina moduan
bata besteaz asebeteta
haurtxoz asebetetako amatxoa.

Umetxo bat ere izango nuke
baldin eta beti ume izango balira
errealitatearen gainetik nire besoetan eutsi ahal banu
nire umeak ez dezan lurra oinekin zapaldu.

Baina haiek gu bezain zaharrak
izatera heltzen dira.

Ez dut inor nire gorputzarekin elikatuko
nik bizi dudan suizidio dosifikatua bizi dezan.

Horregatik odolatan nago eta kolikoak ditut
eta estutu egiten dut sabel huts hau
eta pilulak irensten ditut lokartu eta
nire ukazioan odolusten naizela ahaztu arte.

Nire azken hilekoari

LUCILLE CLIFTON

beno, neska, agur,
hogeita hamazortzi urte ostean.
hogeita hamazortzi urte eta zu
sekula ez zinen iritsi
dotore zure soineko gorriarekin
niretzat arazo barik
nonbait, nolabait.

orain bukatu da
eta sentitzen naiz justu
amona horiek bezala,
lotsagabeak alde egin ostean
esertzen direnak bere argazkia hartuta
eta hasperen eginez, *ez al zunan*
ederra? ez al zunan ederra

Menopausia

GIOCONDA BELLI

Ez dut ezagutzen
baina, orain arte,
munduko emakumeek gain hartu izan diote.
Estoizismoagatik izango zen
edo orduan inork ez zielako eman
kexatzeko eskubiderik,
kontua da gure amonak
gorputzez zimel
baina arimaz indartsu
iritsi zirela zahartzarora.
Orain berriz
tratatuak idazten dira
eta, hogeita hamar urte betetzearekin,
sufrimendua hasten da,
hondamendiaren aurreusmoa.

Gorputza hormonak baino askoz gehiago da.
menopausikoa edo ez,
emakumeak emakume izaten jarraitzen du;
Humore edo obulu fabrika bat
baino askoz gehiago.
Hilekoa galtzea ez da erlojua galtzea,
ezta ahalmenak ere;
ez da barraskiloa bezala
maskor batean sartu
eta hiltzen hastea.
Depresioa badago,
ez da ezer berria izango;
hilekoaren odol arrasto bakoitzak
amorruren dosi irrazionala eta malkoak ekarri ditu.
Beraz, ez dago arrazoirik
debaluatuta sentitzeko.
Bota itzazu tanpoiak,
bota toalla higienikoak.
Egin ezazu su bat haiekin zure etxeko patioan.
Erantzi zaitez.
Dantza ezazu helduaroaren dantza errituala.
Eta bizirik iraun ezazu
denok bizirik iraungo dugun bezala.



Dora Salazar

5.





Hilekoa berrogei urterekin

ANNE SEXTON

Seme bat nuen buruan.
Emasabela ez da erloju bat
ezta hoska ari den kanpai bat ere,
baina haren hamaikagarren hilean
bai gorputzaren bai egutegiaren
azaroa sentitzen dut.
Bi egun barru nire urtemuga izango da
eta beti bezala lurrak eman du bere uzta.
Orain heriotzaren bila nabil,
jaidura dudan gaua,
maite dudan gaua.
Ongi, beraz...
mintza zaitez horretaz!
Emasabelean zegoen denbora guztian.

Seme bat nuen buruan...
Zu! Inoiz eduki gabea,
inoiz erein eta askatu gabea,
zu, beldurgarri zitzaizkidan genitalduna,
piztikumearen enbor-hatsaren jabea.
Nire begiak izango dituzu edo harenak?
David edo Susan izango zara?
(Besteri entzunez ikasi nituen bi izenok).
Izan al zaitezke zure aitak diren gizona...
Michelangeloren hanketako giharrez,
Jugoslaviako eskuez,
nonbait laborari eslaviar eta segurua,
nonbait biziaz gainezka dagoen biziraulea...
eta are posible balitz...
hori guztia Susanen begiekin?

Hori guztia zu gabe...
bi egun odoletan joanak.
Neu ere bataiatu gabe hilko naiz,
aintzat hartu ez zuten hirugarren alaba.
Nire santu-egunean helduko zait heriotza.
Zer du txarra santu-egunak?
Eguzkiaren aingerua besterik ez da.
Emakume bat,
zurearen gainean amarauna ehuntzen,
pozoi sotil eta katramilatua.
Eskorpioia,
armiarma zitala...
hil zaitez!

Nire heriotza eskumuturretatik,
izenekin bi etiketa,
lore pulsera gisa jantzitako odola,
loratu dadin
bat ezkerrean eta bestea eskuinean...
Odolaren lekua
gela beroa da.
Utzi atea zabal-zabalik!

Bi egun hil zaitezen
eta bi egun ni hil arte.

Maitasuna! Gaixotasun gorri hori...
urtez urte, David, erotuko nindukezu!
David! Susan! David! David!
bete-beterik eta orraztu gabe, gauean txistuka,
inoiz zahartu gabe,
beti portxean zure esperoan...
urtez urte,
nire azenarioa, nire aza,
beste emakume denak baino lehen gozatuko zintuzket,
zure izena esanez,
nirea zarela esanez.

Komunioa - III

CRISTINA PERI ROSSI

Emakume izateak min ematen du —diozu, zure sabelean
nire eskua uzten dudana bitartean—
Emakume izatea mina da —diozu—,
eta nik kontsolatzen zaitut eta analgesiko bat eman.

Baina gaurko oinaze honek eztiago izaten irakasten dizu
errukiorragoa samurragoa
besteen bestelakoen oinazea ulertzeko eta zaintzeko
genero bereizketarik gabe.

Oinaze honek goretsi gizatiartu egiten zaitu
emakume eta eskuzabal egiten zaitu

isuritako odol guztia da zure odola
estoldak gainezka utzi dituen odola
bortxatutako emakumeen odola
umiliatutako emakumeena

tratu txarrak jasan dituztenena
belodun emakumeena
burkaren kartzela barruan giltzapetutakoena

zure odola estigma da: kide izatearena
esklabotzarena

odol sortzailea eta bizigarria

bizitza isurtzen duen odola

ez heriotza.

Utz iezaiezu elkar odolustu dezaten
beren ondasun zitalengatik
beren jainko gupidagabeengatik

beren jabetza makabroengatik
beren auzi eta diruengatik

zure odolak bizia ematen du
ez heriotza.

Bedeinka ezazu bizitzak ematen duen oinaze hori
BAINA HAR EZAZU ANALGESIKO BAT.

Amorruaren fenomenologia

ADRIENNE RICH

Argi zuriak zatitzen du gela.
Mahaia. Leihoa. Lanpararen itzala. Zu.

Nire eskuak, modu berri batean itsaskor.
Hilekoaren odola
zure ondotik isurtzen bezala.

Saiatuko al zaizkit epaileak esaten
zein ote zen zeinen odola?

Zauri bakarra

ALEJANDRA PIZARNIK

Zein piztia sorgortu
dabilkit odolean arrastaka
eta salbu egon nahi luke?

Hona hemen zailena:
kalerik kale ibiltzea
eta zerura edo zorura seinalatzea.

6.



Judy Chicago

Doako konpresa higienikoak

STELLA NYANZI

Diktaduraren krepuskuluan

Diktadoreak burua galdu zuen benetan

Bere burdinazko ukabilaren hatz estuak sartu zituen.

Ugandako neska gaztetxo pobreen hileko odoletan.

Jendetasun merke baten zoramenean

Beste promesa huts bat egin zuen.

“Eman botoa niri, eta zuen alabei doako konpresa higienikoak
banatuko dizkiet ikasten jarrai dezaten!”

Diktadorea txerri gezurti gaizkilea da.

Nekazari sinesberak alabak odoletan

Botoak aldatuta promesa egindakoaren alde

Bozkatzen zuten bitartean, gogoan zuten

Ukabil estua hileko odol berritan estalia.

Haren keinu beligeranteaz oroitu ziren.

Haien alaba odoltsuen ataka azaltzen uztean.

“Eman botoa niri, eta zuen alabei doako konpresa higienikoak
banatuko dizkiet ikasten jarrai dezaten!”

Diktadorea boto lapur esplotatzailea da.

Boterea berreskuratu ostean

Diktadorea gezurti agertu zen.

Publikoki garbitu zuen hilekoaren odola

Odoletzatuko esku lapurretatik

Emazte mozkorra bidali zuen gezurrez esan zezan

Doako konpresa higienikotarako sosik ez dagoela

Uste du ahaztu dugula bere promesa faltsua?

“Eman botoa niri, eta zuen alabei doako konpresa higienikoak
banatuko dizkiet ikasten jarrai dezaten!”

Diktadorearen biografia hileko odolez zikinduta.

Odola

POTTORS ETA KLITO

Odola izterretan behera
ai ama zer ote da?
Hilekoa, menstruazio, regla..
welcome emakume artera!

Ta orain zer, orain zer?
Konpresa jarri laztana!
Ta orain zer, orain zer?
Minarentzat pilulakada!

Supermerkatuan bueltaka
luxu prezioan tanpaxak
Orgatxoa bete-betera
kanpora goaz lazterka!

Ekintza zuzena!
Egin koparekin topa!
Ekintza zuzena!
Gozatu zure odolaz!

ODOLA! ODOLA!



Hilekoa

RUPI KAUR

Hilero odola isurtzen dut humanitatea posible izan dadin laguntzearren.

Dibinoaren tenplua da nire sabela
bizitzaren iturburua espeziearentzat
sortzea erabaki edo ez.

Baina oso gutxitan ulertzen da hala.



Rupi Kaur

Antzinako zibilizazioetan odol hau sakratutzat jotzen zen. Batzuetan oraindik hala da.

Baina pertsona, jendarte eta komunitate gehienek mespretxatu egiten dute prozesu natural hau.

Batzuk lasaiago sentitzen dira emakumeak prostituituz, emakumeak sexualizatuz, emakumeen kontrako bortxarekin eta degradazioarekin, eta ez dute gai horiekiko disgusturik adierazten, baina haserretu egiten dira eta sumindu

hilekoaz mintzatzen bagara.

Hilekoa izan ohi dugu eta zerbait zikintzat ikusten dute, gaixotasuntzat, zamatzat, atentzioa deitzeko erabiltzen dugu zerbaiten moduan. Arnasa hartzea bezain naturala ez balitz bezala. Unibertsoaren eta etorkizunaren arteko zubi bat izango ez balitz bezala. Maitasun prozesu bat izango balitz bezala. Lan prozesu bat. Bizitza prozesu bat. Modu zoragarri eta eskuzabalean ederra.

Emakumeen posizionamendurako

OPAL PALMER ADISA

hawaiin
emakumeak
hale pe'a-ra joaten dira
beren indarra elikatzero
beren oreka berrezartzera
jah gizonak ez du nahi
bere emazteak
bolada horretan
janaririk presta dezan
istorio xuxurlatuak
ez jan inongo emakumek
gisatutako frijolerik
ez dago inoiz jakiterik
harrapatuko zaitu
sorginduko zaitu
beragana lotuko zaitu
betiko
simbu herria
papua ginea berrikoa
indonesiarren artean
mendebaldeko afrikarrengan

ia leku guztietan
ahizpaz ahizpa
lan egiteari uzten diote
gizonengandik atsedean hartuz
komunitatetik bazterturik
istorioak kontatzen zituzten
beren bakardadea babestuz
indartsu bihurtzen ziren
gizonei
eragin egiten zieten
beren odola erabiliz
egiazkoa batzuetan irudikatua
emakumeen
posizionamendurako
espazio bat irekitzeko



Jaki Moore

Testuotako batzuk itzulpenak dira,
eta eskerrak eman nahi dizkiegu
honako itzultzaileoi:

Arantza Etxeberria, Asier Sarasola,
Irene Arrarats Lizeaga,
Josu Landa, Maialen Berasategi

PORRA

Sei atal ditu koadernoak baina izenburuak ezabatu ditugu.

Hemen aurkezten ditugu zortzi izenburu,
horietatik 6 egiazko dira.

Jarri izenburu bakoitzari bere atalaren zenbakia
(kontuan izanik bi estra daudela).

- ☐ Konpresak eta kopak
- ☐ Pobrezia menstrualak
- ☐ Menopausia
- ☐ Sentsazio konplexuak
- ☐ Ginekologoaren aurrean
- ☐ Arrain usaina
- ☐ Mana misterioak
- ☐ Ilargia eta zikloa

Bonus galdera: Koaderno honetako idazle batena da
“Burdina gorria, biziaren gorria” izenburua,
baina esaldia ez da testuetan agertzen.

Norena da? X marka egin:

- ☐ Miren Agur Meabe
- ☐ Bego Montorio
- ☐ Anne Sexton
- ☐ Leire Bilbao
- ☐ Lourdes Oñederra

Testu hauek
Hernanin irakurri
eta entzun ziren
Hilekoa izeneko
ekitaldian
2021eko apirilaren 25ean
(Krabelinen Iraultzaren
47. urteurrenean)

A red handwritten signature, possibly reading 'mi', is centered below the text.



2014

SARA MORANTE



BONUS TRACK

Eskularruak

ONINTZA ENBEITA

(*Berria*, 2021-04-23)

Nire odolak ez dit nazkarik ematen; ezta aluan behera dato-rreanean ere. Neure eskuekin ukitu dut alua ume naizenetik, eta ez plazera aurkitu nahian bakarrik: baita garbitzeko, zaintzeko edo, gehiago gabe, hor dagoela ziurtatzeko ere. Beraz, ez dut oso ondo ulertu emakumeentzako eskularruen kontu hori. Zenbait gizonak eskularru arrosak merkaturatu dituzte emakumeok hilerokoarekin gaudenean erabil ditzagun. Nik daki-dala hilerokoa ez da gaitz kutsagarria, eta alua garbitu ondoren edo tanpoia, kopa zein trapua aldatu ondoren, eskuak garbitzearekin nahikoa da. Kontua da, ordea, gizon askorentzat gure hilerokoa zikina dela, eta orduan, eskularru arrosak saldu gura dizkigute gu beti garbi egon gaitezen. Arrosak. Betiko urdinek edo zuriek ez dute balio, antza. Erridikulua izatetik aparte, iraingarria da. Munduaren erdiak bere bizitzaren heren batean hilerokoa galtzen du odola, eta horrek, estigmatizaturata baino gehiago, naturalizatuta egon behar luke.

Gauza gutxi gehiago esan dezakegu esan duguna baino gehiago. Bistan dago odol guztiek ez dutela nazka berdina ematen, eta horretan ere emakumeok seinalatu gaituzte. Edozelan ere, gustura galdetuko nieke eskularru arrosa hauen asmatzailei ea eurek ipurdia eskularru urdinekin garbitzen duten kaka egin eta gero.